

egosgogof, egosbigun, egoskaitz, herosdun, gaizbide, jausbide, ikasbide, ikasgura, inkhasgei, irabazbide, iresbide, irunsbide, ozbera, ozberatasun, ozberatu, ozbero, t. a.

d. astagaizdun, biozdun.

g. ahantzarazgafi, ahantzgafi, âzgafi, afatsgofi, goizgofi, auzbafena, auzgora, hasgai, azgale, azganeko, azgafi, azgura, azguren, azgatx, beraxgura, biozgafi, biozgabetasun, biozgabekeri, gurbizgofi, jausgafi, zimizgai, zumizgai.

§ VI

J'REN OTSA ETA IDAZKERA

(PIERRE BROUSSAIN ZANAK (G. B.) 1920^{ko} EPAILA'REN 24^{ta})

BATZAREAN EGINDAKO IKERPENA¹⁾

Orain arte euskeraz idatzi duten hasburuek (los autores) eta bermoleginek (los periodistas) j eta y erabili dituzte lau ots agertzeko : i, j pantsesa ,d, eta j española, eta ba'dire oraindik asko euskaltzale eta euskalterle (baskólogos) zonbait era ori au'era juañ-erazi nahi luketenak. Ene aburua, hofi aitzikoa (aitziko = contrario, opuesto) delakotz, Euskaltzaindi'ko bazkideei nire zioak zoin diren esateko baimena eskatzen diet.

Arau bi ba'dire ludi guziko mintzaiterleen (linguistas, filólogos) artean : Lenengoa : Ots bakoitzak bea' duela idatz-agergailu (representación gráfica) bat, eta idatz-agergailu ori beti berdiña.

Bigafena : Idatz-agergailu bakoitzak ez duela ots bat baizik agertu behar.

Laburtzeko esan daiteke : ots bezenbat idatz-agergailu, idatz-agergailu bezenbat ots.

1. Ikus EUSKERA' ren I^{ko} Atala, 68 ga'ien o'ian.

Bi arau auei aurfka ibiliz, guk, euskaltzainok, mintzaiterle guztien gaitzespena bilduko genduke eta gainera gure euskera maitearen « ortografiari » bere karentasuna, bere argitasuna kenduko genioke.

Una zer aŕepintzen (proponer) dizutedan :

Ikusiz oraingo idazle geienek *j* egarten (hacer uso) dutela, *j* ori edukiren (edukiko) nuke, dan bezela, Bizkaitaŕen eta Ziberotaŕen *j* frantsesa agertzeko, eta aldagailu arin batekin Bizkaitar zonbeiten, Nafartaŕen, Benafartaŕen eta Lapurtaŕen *ĵ* adi-erazteko.

Gipuzkoaŕen *jota* agertzeko *jh* edo *hj* erabil al litake.

J'ren atzean ala aŕfean *h* dazart (ezartzen det, ipintzen det) erakusteko ots' ori gogor eta latz dela, eztaŕi edo zintzuŕetik irtetzen dela.

Mintzadar (dialecto) edo izkelgi guzietan erabiltzen dan itz au : *jan*, unela idatziko nuke :

yan (mingatuz (mingatu-pronunciar) : *ian*) Bizkaitar zonbeitentzat.

jan (mingatuz gutxi gora-bera Frantsesek lez) Bizkaitar zonbeitentzat eta Ziberotaŕentzat.

jhan ala *hjan* (mingatuz : Espaŕnolen *jota*) Gipuzkoaŕentzat.

ĵan ala *ĵan* (mingatuz : *d*, *d* bustia) Bizkaitar zonbeitentzat, Nafartar, Benafartar eta Lapurtaŕentzat.

xan (mingatuz : *x* edo *s*) Nafaŕoako Efonkaritar, Saraitzutar eta Aezkoaŕentzat.

Gerta daiteke neure euskaltzain lagunek auxe esango didatela :

« Sortu edo irazan (crear) nahi degun izkera bakunduan, elertizko (literario) euskeran, itz bera beti bearko degu era edo modu beraz mingatu. *Jan* beti berdin min-

gatuko degu, nahiz Bizkaitaŕek bezela, nahiz Gipuzko-
oaŕek edo Lapurtaŕek lez. Gero ikusiko.

« Elertizko mintzaia guzietan itzek beti mingapen (pro-
nunciación) bera daukate. »

Benatz (objección) honi erantzungo diot auxe :

Gure arloa ez da bakafik datoŕen izkera bakunduaren
bexinedua (ortografía) egitea. Guri dago berdin oraingo
izkelgi guztien bexineduaren autatzea. Ofengatik gure
azken batzaldian erabaki degu nola idatzi beaŕ diran
Ziberotaŕen ü eta Eŕonkaritaŕen sudufetikato ots batzu,
zî, âô, eta abaŕ.

Egingei degun elertizko euskeraz bezenbatean, ontzat
artzen det eta zinez itz bakotxa beti era beran mingatua
izan dedin. *Jan* beti berdin idatziko eta esango da.

Euskaltzaindiak erabakiren (erabakiko) duen eraz, eta
nik euskaltzainen geiengoaren iritziari pozik amor ema-
nen (emango) diot.

Bainan, y, j, j, eta jh auetatik ots bakar bat edukiren
ote degu gure elertizko euskeran? Ez dirudit ondo lita-
kela.

Izkera batek ots geiago, eta aberatsago.
Ots geiago, eta « fonetika » edefago.

Gipuzkoafen *jota* lekot (salvo, fuera de) nahi nuke
beste ots guziak eduk ditzagun. *Jota* ori euskaltzale as-
kori etzaie gano (no les agrada), lehenik belafirako bigun
ez delakotz eta bigaŕen sortu edo jaio beŕia delakotz Gi-
puzkoako izkelgian. Nabaro (notorio) da ez dela, y eta j,
bezin zahara ; eta ots auen guztien itufia *i* zela.

Nire aburupena litake j batekin asten diran itz geienak,
hala nola : jan, jaun, josi, jo, joko, juan, eta abaŕ...
mingatu eta idatzi beaŕ genituzkela j izkiaren gaiflean
edargailu txiki bat jaŕiz, Lapurtaŕek eta Napartaŕek orain
mingatzen duten lez.

Bizkai ta Zibero'n bakañik entzuten diren itz batzuri utziko ginioke orain daukaten j frantsesa, mingapenez ta « ortografiaz » unela ipiñiz : jagi, jai, jaibal (B) enjogi, eijer, jin (S).

Bertze itz bazuetan ondo liteke asierako i' ren otsa edukitzea, ots ori y' rekin agertuz, hala nola : yagon, yagola, yaramon, yaraunsi (B, arc).

Aski liteke ogei bat itzetan j prantsesa edukitzea eta beste ogeitan Bizkai'ko *i* edo *y*.

Oñela bi ots auk ez genituzke galtzerat utziko egin-kizun degun elertizko euskeran.

D^r BROUSSAIN,
Azparé'n egina Epailaren II' an 1920.

s VII

LE SON ET L'ORTHOGRAPHE DU J

(PIERRE BROUSSAIN ZANAK (G. B.) URTE BÉRAKO IOÑAILAREN 25^o)

BATZARERA BIALDU ZUAN IKERPENA 1)

J'estime que la langue littéraire unifiée que nous vous proposons de créer doit être une synthèse de toutes les richesses de l'euskera, richesse de syntaxe, richesse de suffixes et richesse phonétique. Dans les milliers de mots que nous aurons à créer pour faire de l'euskera une langue civilisatrice nous devons faire entrer toutes les racines et tous les suffixes des divers dialectes, ainsi que tous les sons de ces mêmes dialectes, de manière à ne rien laisser perdre des ressources de notre langue ancestrale.

Jé ne parle, bien entendu, que des mots à créer. Dans

1. Ikus EUSKERA' ren I^o Atala, 70 gañen oñian.